

CONFEBASKEKO PRESIDENTEAREN HITZALDI INSTITUZIONALA**ROBERTO LARRAÑAGA****2017-10-20****TERRORISMOAREN BIKTIMA IZANDAKO EUSKAL ENPRESARIEN OROIPEN ETA
ERREKONozIMENDURAKO EKITALDIA****EUSKALDUNA JAUREGIA (BILBAO)****HITZALDI INSTITUZIONALA**

CONFEBASK eta bere erakunde fundatzaileak (**ADEGI, CEBEK eta SEA**) konprometituta egon gara eta gaude ordezkatzan ditugun enpresekin eta enpresaburuekin, baita ere bizi eta lan egiten dugun Herrialdearekin ere: Euskadi.

Zuetako askok estortsioa, mehatxua, askatasun falta eta hurbileko pertsonen heriotzak eragindako mina sentitu duzue, haien ondoan lan egin eta bizi izan baikara.

Gaur lagun horiek guztiak oroitu eta errekonozitu nahi ditugu, indarkeria eta estortsio terroristaren sufrimendua, bazterketa eta bakardadea sufritu zuten euskal enpresari eta zuzendariak. Gogoan ditugu lehen pertsonan min bidegabe eta konponezina sentitu zuten pertsonak eta senideak, mehatxua eta jazarpena nozitu zutenak, maila pertsonalean zein familiarrean, hainbat urtez, urte gehiegiz.

Kolektibo enpresarialak isilik bizi izan du, askotan bakarrik, gure gizartearen zati baten bazterketa, estigmatizazioa eta seinalamendua. Horregatik, ulertu dugu gaurko eguna garrantzitsua zela eta dela gu guztiontzat, ekitaldi honetan gurekin zaudeten gizon eta emakume guztientzat.

Zertarako hainbeste sufrimendu? ; Zertarako hainbeste min? ; Zertarako hainbeste ausentzia eta hutsune?

Oraindik erantzun batzuk falta zaizkigu. Gaur eta hemen, gogoratu behar dugu, mehatxuaren eta estortsioaren aurrean, minaren eta bazterketaren aurrean, euskal enpresarien zatirik handienak lanean jarraitu duela bere enpresetan, gure herrietan eta bere etxeetan biziz, euren senideekin. Euskal gizarteak badaki beti erakutsi dugula Herrialde honen aldeko konpromisoa eta, bizitako guztia gorabehera, denontzako aberastasuna, enplegua eta ongizatea sortu dugula.

Gaurko ekitaldia oroitzapen eta justizia ekintza bat da. Egiteko betebeharra daukagu. Zuengatik guztiongatik, gaur egun falta zaizkigunengatik. Kendu zizkigutenengatik.

Halere, **orainari eta etorkizunari ilusioz eta itxaropentsu begiratzen diogu**. Datozen urteak denontzako hobeak izango direlako konfiantzarekin ere: hazkunde ekonomikoarekin, Euskadi osatzen dugun pertsona guztien enplegu eta ongizate hobearekin.

Gizarte kohesionatu bat finkatzeko aukera daukagu, bakean. eta gizarte honen oinarrian jarri behar dugu falta zaizkigunen aldeko oroitzapena, gure egiatik baita ere, ikusi berri dugunaren gaineko errelatutik, sufritu zutenen eta eutsi zutenen, eta tamalez alde egin behar izan zutenen ekarpenetik.

Guztiek lagundu ziguten, lagundu zeniguten, gaur dugun Herrialdea eraikitzen. Ezin dugu ahaztu, ez dugu ahaztu behar. Nahi dugu euskal gizarteak jakitea zer gertatu zen eta nola bizi genuen. Horregatik gaude gaur hemen.

Omenaldia gaur zuengana zuzentzen ari gara, euskal kolektibo enpresarialarengana... baina gainerako biktimak ere ahaztu gabe, izan ere, guk bezala, urtetan sufritu dute indarkeria terroristaren atzamarka krudela. Gaurkoak oroimenezko omenaldia izan nahi du, euskal enpresariak bizitako gogortasunagatik, baina ekitaldi integratzailea ere izan nahi du, solidarioa, bestela ezin izan eta, kolektibo eta herritar guztiek, oro har, bizitako minagatik.

Horrez guztiaz gain, gaur berriro ere, **ilusio, esperantza eta fede mezua konpartitu nahi dugu, zer garen eta guztion artea zer lortu dugun aitortzeko**.

Ekitaldi solemne honetan zuen presentzia eskertu nahi dut. Nahi dut zuen senide, seme-alaba, senar-emazte edo gurasoei helarazi diezaiezuen gogoan zaituzteguna, eta ez dugula zuen mina eta orduko bakardadea ahaztu nahi. Bakardade konpartitua, askotan distantziatik, askotan ulertu ezinetik.

Har ezazue guzti-guztiok laguntasun, hurbiltasun eta elkartasun besarkada bat.

Eskerrik asko.